

Espedientearen kodea: 2025ZZ020010

Espedientearen gaia: 2025ean Oiartzunen arte sorkuntza eta ekoizpen prozesuak garatzen ari diren Oiartzungo artistei dirulaguntzak.

Titularra: OIARTZUNGO UDALA

DEKRETUA

2022ko ekainaren 29an onartu zituen Udalbatzak “Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak arautzeko Ordenantzak”, 2022ko irailaren 20an argitaratu zirenak GAOn.

Era berean, 2024ko urriaren 30ean onartu zuen Oiartzungo Udalbatza Osoak “Oiartzungo Udalaren 2025-2027 dirulaguntzen Plan Estrategikoa.

2025eko maiatzaren 13an onartu zituen Udalak “2025ean Oiartzunen arte sorkuntza eta ekoizpen prozesuak garatzen ari diren Oiartzungo artistei diru laguntzak banatzeko oinarriak”.

Diru laguntza hauek ordaintzeko, guztira, 10.000 € euroko gastu-onarpena egin zen, Oiartzungo Udalaren 2025 urteko aurrekontuko aurrekontuko 1 0331.481.334.00.08.2025 (A-1236-2025) zenbakidun partidaren kontura.

Dirulaguntza hauetan kontuan izan da 38/2003 dirulaguntzak arautzen dituen Lege Orokorra, Oiartzungo Udal Ordenantza Orokorra, 2025-2027rako dirulaguntzen Plan Estrategikoa, eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako indarrean dagoen araudia.

Dirulaguntzen zenbatekoa finkatzeko, eskaera orrian eta eranskinetan behar bezala jasota eta egiaztatuta dauden datuak hartu dira kontuan.

Eskatzaileek euren ekintzei buruz aurkeztutako datuak baloratu dira, oinarrietan jasotzen denaren arabera.

Dirulaguntzak kalkulatzeko, lehenik, puntuaren balio unitarioa atera da; horretarako, dirulaguntzaren lerro honetako aurrekontua, onartutako eskaeren puntuaren batura artean zatitu da. Jarraian, eskatzaile bakoitzari dagokion puntu kopurua, puntuaren balio unitarioaz biderkatu da.

Kultura Zerbitzuko arduradunak uztailaren 28an gai honi buruz luzatu duen txostena ikusirik, eta beronekin adostasunean, Toki Jaurbidearen Araudiak ematen dizkidan ahalmenen egikaritzan honakoa

ERABAKI DUT

Lehena.- Epearen barruan aurkeztutako eskaerak aztertuta eta deialdiaren oinarrien arabera, 2025 urtean Oiartzunen arte sorkuntza eta ekoizpen prozesuak garatzen ari diren Oiartzungo artistei diru laguntzak banatzeko proposamena onartzea, erantsitako taulan txertatzen dena.

- o Eskaerak ebaluatzeko irizpideen garapena oinarrien arabera:

Dirulaguntzen zenbatekoa finkatzeko, eskaera orrian eta eranskinetan behar bezala jasota eta egiaztatuta dauden datuak hartu dira kontuan.

Eskatzaileek euren ekintzei buruz aurkeztutako datuak baloratu dira, oinarrietan jasotzen denaren arabera.

Dirulaguntzak kalkulatzeko, lehenik, puntuaren balio unitarioa atera da; horretarako, dirulaguntzaren lerro honetako aurrekontua, onartutako eskaeren puntuaren batura artean zatitu da. Jarraian, eskatzaile bakoitzari dagokion puntu kopurua, puntuaren balio unitarioaz biderkatu da.

Eskaerak aztertuta, erantsitako taulan adierazitako puntuazioa lortu du eskatzaile bakoitzak, eta ondorioz, adierazitako dirulaguntza ematea proposatzen da.

Bigarrena.- Diru laguntza hauek ordaintzeko, guztira, 10.000 € euroko gastu-onarpena egin zen, Oiarzungo Udalaren 2025 urteko aurrekontuko aurrekontuko 1 0331.481.334.00.08.2025 (A-1236-2025) zenbakidun partidaren kontura. Dirulaguntzak banatzeko eta ordaintzeko proposamena, erantsitako taulan txertatzen dena, onartzea.

Hirugarrena.- Oinarriek ezarri bezala, txostenean adierazitako lehen ordainketak orain egitea (%80ari dagokiona, hau da guztira 8.000 €) eta gainerakoa (% 20ari dagokiona, hau da, guztira 2.000 €) interesatuek gastuak justifikatu ondoren ordaintzea.

Laugarrena.- Interesatuei dagokien dirulaguntzaren justifikazio-agiriak (eskabide-orria + IV, V, eta VI eranskinak gastuen justifikanteekin batera, 2026ko urtarrilak 31a baino lehen, udal erregistroan aurkeztu behar dituztela jakinaraztea. Orduan ordainduko zaie gainerako % 20a.

ARTE SORKUNTZARAKO DIRULAGUNTZAK 2025					
ESKATZAILEA	PROIEKTUA	GUZTIRA	ESKATU	ESLEITU	% 80 ORAIN
1545 argitaletxea	"Su txikian", "Filosofia, txakurra eta ezkontza", "Memoria berriak"	80	3.500,00 €	975,87 €	780,69 €
June San Sebastian Sein	Zahar etxeko pertsonen erretratuak	90	1.300,00 €	1.097,85 €	878,28 €
Alternatiben Oihartzuna	"Gazako familiak" bideoa	85	1.050,00 €	1.036,86 €	829,49 €
Elizaldekoak LH Guraso Elkarte	Tobera publikoa	70	2.400,00 €	853,88 €	683,11 €
Ander Arrieta Odriozola	"Basozain" laburmetraia	60	1.500,00 €	731,90 €	585,52 €
Udane Ansa Iragorri	Haur eta gaztetxoentzat album ilustratua	75	5.065,00 €	914,88 €	731,90 €
Oihan Astigarraga Arruabarrena	Musika albuma CDan ekoiztu	65	1.300,00 €	792,89 €	634,31 €
Ainara Lasa Perez	"Azalera" instalazioa	95	770,00 €	770,00 €	616,00 €
Ibai Zarketa Moyua	"Ihote" txotxongiloa	95	1.000,00 €	1.000,00 €	800,00 €
Oiarzungo Antzerkizale Elkarte	Kluedo Jolasa	75	850,00 €	850,00 €	680,00 €
Mirokutana Kooperatiba Elkarte Txikia	"Lehergailu termobarikoa" laburmetraia	80	5.600,00 €	975,87 €	780,69 €
		GUZTIRA 870 puntu	24.335 €	10.000 €	8.000 €

Alkate udalburuak agintzen eta sinatzen du.

Oiartzunen, sinaduraren egunean.

Joana Mendiboure

Alkatea

Elektronikoki sinatua



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas	
Titulua / Título:	2025ZZ020010-Dekretua/Decreto (OIARTZUNGO UDALA)